

LEGORRETA 2030, PLAN ESTRATEGIKOA

ARDAZKAKO MAHAI ZABALA. 1. SAIOA

Eguna: 2021/10/16

Ordua: 10:00-13:00

Lekua: Legorretako Herri Antzokian

Parte hartzaileak: 38 lagun, 26 emakume eta 12 gizon

Elhuyarretik Amaia Zarrabeitia, Joxepa Bornaetxea, Idurre Zugastizabal eta Elixabet Urzelai

Gai-zerrenda:

1. Harrera
2. Sarrera: saioaren helburu eta planteamendua, eta partaidetza-prozesua eta aurrera begirako datak azaltzea
3. Girotzea
4. Legorreta 2030 Plan Estrategikoaren aurre-diagnostikoaren aurkezpena
5. Lan-taldeetako dinamika: erronken lanketa
6. Plenarioan partekatzea: ondorio nagusiak
7. Balorazioa
8. Itxiera

Akta:

1. Harrera

Parte-hartzaileei harrera egin eta datu-babeserako baimen-orriak banatu ditugu. Itzulpengintza zerbitzua azaldu eta bideratu dugu (Telegram bidez) behar duten partaideentzat.

Saioari hasiera emateko, Zelai Amenabarrok, Legorretako alkateak, bertaratuei ongi-etorria eman die, prozesuaren kokapena eta zergatiak azaldu ditu, eta Elhuyarreko teknikariak aurkeztu ditu.

Jarraian, parte-hartze saio zabalaren helburua eta planteamendua azaldu diegu bertaratuei, euren egitekoa zein izango den argitzearekin batera.

Saioaren helburua: Legorreta 2030 plan estrategikoaren aurre-diagnostikoa aurkeztu eta osatzea, eta etorkizuneko Legorreta irudikatu eta erronkak marraztea.



2. Sarrera

Behin saioaren nondik-norakoak azalduta, Legorreta 2030 Plan Estrategikoaren [parte-hartze prozesua](#) azaldu diegu: helburuak, lantaldeak, urratsak eta datozen data garrantzitsuak.

3. Girotzea

Partaideak elkarren artean hobeto ezagutzeko eta taldearen ezaugarriak zein diren ikusteko ariketa bat proposatu dugu. Baieztapen batzuk irakurri ditugu banan bana eta baieztapen horiekin identifikatuta sentitu dena zutitu egin da.

Jarraian baieztapenak:

- Legorretan jaioa naiz / *He nacido en Legorreta*
- Azintzio festak gustuko ditut / *Me gustan las fiestas de Azintzio*
- Legorretako elkarte edo eragile bateko kidea naiz / *Soy miembro o participo en una asociación o grupo de Legorreta*
- Bost urte edo gutxiago daramatzat Legorretan bizitzen / *Llevo viviendo en Legorreta menos de 5 años*
- Legorretako Udal Aldizkaria irakurtzen dut / *Suelo leer la Revista Municipal del Ayuntamiento*
- Legorretan bizi nahi dut / *Quiero vivir en Legorreta*

4. Legorreta 2030 aurre-diagnostikoaren aurkezpena

Elkarren ezaugarriak behin hobeto ezagututa, ardazkako mahaietan landu ditugun aurre-diagnostikoaren eta irudikatu ditugun erronken aurkezpena egin dugu.

Aurre-diagnostiko horretan jasotzen dira 3 ardazkako-mahai edo lantaldeek (zaintza, herrigintza eta antolakuntza) ondorengo galderen inguruan egindako hausnarketa eta irudikatutako erronkak: Nolakoa da gaur egungo Legorreta? Ze indargune ditu? Eta hobetzekoak?

Emaitza partekatu dugun bitartean, entzute-aktiboa egiteko eskaera luzatu diegu partehartzaileei. Horretarako, entzute-fitxa bana jarri dugu aulkietan, eta guk azalpenak eman ditugun bitartean bertan oharrak jasotzea proposatu diegu:

- Zerk eman dit atenzioa?
- Zer gustatu zait?
- Eta zer bota dut faltan?
- Besterik?

Entzute-fitxa, ondoren, talde txikitik jartzerakoan osatu eta partekatu dugu.



Jarraian banakako hausnarketa-fitxetan jasotako ideiak:

- Deigarria egin zait**
- Liburutegia berritzeko beharra agertzea.
 - Herri euskalduna dela aipatu da, agian ezagutza badugu, baina erabilera asko jaitsi da.
 - Gustatu zait herritarren ikuspegi zabala jasotzen dela.
 - Uste nuena baina garatuago dago diagnostikoa.
 - Nola egin den diagnostikoa.

- Gustatu zait**
- Gazteen beharrak agertzea.
 - Ibilbidea nola egin den, adin desberdinekoen arteko elkarbizitzari garrantzia ematea...
 - Erronkekin oro har ados (DENAK).
 - Ikuspegi osoa jasotzea.
 - Herriaren gabezia eta indarguneak ikustea gustatu zait
 - Herriaren erronkekin erabat ados.
 - Abarcó muchos aspectos de importancia.

- Faltan bota dut**
- Energia → hobetzekoak → eguzki panelak etxebizitzetan menpekotasuna ez izateko bidean
 - Merkataritzan digitalizazioak ekar ditzakeen ekarpenak txertatzea (online erosketak, zuzeneko eskaerak, etb.)
 - Ingurumena eta aldaketa klimatikoaren gaia ez ateratzea.
 - Bidegorria ez da ongi erabiltzen, oinezkoen esku dago eta bizikletak karreterara atera behar dute. Aztertu beharko litzateke bidegorri egoki bat egitearen bideragarritasuna, bidegorri egoki bat egin eta dagoena oinezkoentzako izan dadin.

Faltan bota dut

- Gazteentzako emantzipatzeko etxebizitzak
- Kontaminazio elektrikoa. Alta tentsioko klabeatua lurperatzeko aukera aztertu beharko litzateke.
- Gaztelekua falta da. 12-16/18 urte tartekoentzako espazioa. Hauek denek Legorretatik alde ez egiteko.
- Espazioa eta ekintzak: futbola, marrazketa, gimnasioa... (extraeskolarrak-eskolaz kanpokoak)
 - o Galdera honi erantzutea: gazteak zergatik joaten dira Ordiziara? Hemen geratzeko zer behar dute?
 - o Beraiekin lanketa egin eta zeharka herriarekiko atxikimendua ere landu.
- Haurren lehenengo urteetan ere erronkak identifikatzea.
- Herritarren ahalduntzea administrazio digitalean, eta arrakala digitala aipatzea. Horri loturik, nola lotu presentzialki bermatu behar diren zerbitzuekin (demagun, medikuak).
- Herriko bankua edo kajaren zerbitzuaren beharra aipatzea.
- Eguneko zentroaz gain, pisu tutelatuei, edo zahartzaroa beste modu batean bizi ahal izateko alternatibak bilatzea.
- Más comercio diverso en el pueblo (librería, tiendas) de modo que se fortalezca la economía.
- Legorreta munduko edo lurreko itsas-ontzi honetan kokatuta dago, beraz, klima larrialdiari buruz ezer ez.
- Bakarrik bizi direnen egoera aztertzea.
- Txikitatik berdintasuna sustatzea.

Besterik

- Etxebizitza mota, behar eta neurri ezberdinei erantzuten dietenak
- Etxebizitza hutsak badaude herrian eta bere horretan utzita. Interesgarria litzateke azterketa egitea zein egoeratan dauden, uholdegarritasuna eta ekonomia dela eta berritzeko ze aukera dauden eta horrek nola erantzun diezaiokeen etxebizitza beharrari.

- Besterik**
- Emandako etxebizitza lizentziekin aurrera egin beharko litzateke.
 - Gaur egun herrian dendak badaude ere, etorkizunera begira zein izango da egoera? ba al dago erreleborik? gaiari heldu behar zaio, herritarrek, merkatariek eta udalak batera aztertu dezakegu eta konpromisoak hartu bi norabidetan.

5. Lan-taldeetako dinamika: erronken lanketa

Aurre-diagnostikoa azaldu ondoren lanketarako tartea iritsi da. Horretarako, lau taldetan banatu gara, norberaren aukeraren arabera, ondorengo gaien inguruan:

1. **Antolamendua:** goiko solairuan, bi gelatan bereizita barne biltzen dituen gaien arabera:
 - Antolamendua 1: Hiri- eta landa-lurrak, ingurumena eta jasangarritasuna eta energia
 - Antolamendua 2: Ekipamendu eta zerbitzu publikoak, ekonomia sektoreak eta enplegua, mugikortasuna eta etxebizitza.
2. **Herrigintza:** eszenatokian
Barne biltzen dituen gaiak: elkartegintza, euskara, haur/nerabe/gazteak, eta adinekoak.
3. **Zaintza:** hemen bertan
Barne biltzen dituen gaiak: elkarbizitza, zaintza, berdintasuna eta inklusioa.

ANTOLAMENDUA 1 LANTALDEA

hiri-eta landa-lurrak, ingurumena, jasangarritasuna eta energia

7 lagun – 3 emakume eta 4 gizonezko

Lanean hasi aurretik aurkezpen erronda bat egin dugu gure artean hobeto ezagutzeko eta lantaldeetako dinamikaren helburua eta planteamendua azaldu dizkiegu.

Helburua: ardatzari lotutako gaien diagnostikoa osatzea eta erronkak identifikatzea

Planteamendua:

1. Aurkezpen erronda
2. Bananako lana eta hausnarketa
3. Talde txikitan elkarbanatzea
4. Ardazkako mahaira bi ideia edo erronka nagusi eramatea, ondoren mahai zabalean aurkezteko

Bakarkako hausnarketarako tarte bat zabaldu dugu, eta, ondoren, bi taldetan banatu gara Legorretaren datozen 8-10 urteetako erronka nagusiak irudikatzeko.

Jarraian jasotako ekarpenak:

Hiri-lurrak

- Uholdegarritasun gaiari heldu beharra. Honek legorretaren garapen eta hazkuntzan zer nolako baldintzak dakartzan aztertzea eta egoera honen aurrean zer nolako irtenbideak dauden aztertzea.
 - o Batzuen ustez, informazio eta azalpenak falta dira.
- Espazio publikoen erabilera eta apropiazioari buruzko azterketa bat egin, errealitatea ondo ezagutu eta zerbait planifikatu edo egin aurretik, datuak izan ditzagun.

Etxebizitza

Gazteak eta batez ere, emakumeak, Legorretan bizitzen geratzeko zein behar dituzten ezagutu eta bertan bizitzeko baldintzak ezartzea

Landa-lurrak

- Legorreta oso herri urbanoa da, hortaz landa-lurra eta baserri ingurunea sustatzeko hau erakargarri egin beharko litzateke, erraztasunak emanez eta ekimen desberdinak bultzatuz.
- Ekoizleentzat erraztasunak eskaintzea, kooperatibak sortzeko laguntzak ematea...
- Gero eta lur abandonatu gehiago dago, sasiak janda. Honen aurrean formula desberdinak planteatu beharko lirateke:
 - o Lur-jabe eta bertako ekoizleen artean lanketa bat egin, terreno horien mantenua bermatze aldera. Udalak bitartekari izan beharko luke.
 - o GFAn lur funtsarekin koordinatu.
- Baso-ustiaketa politikak landu eta beharrezkoa bada herri-lurretan zer egin daitekeen mugatu (eukalptoak, adibidez).
- Herri-bideen garbiketa eta zaintza udalak egitez gain, guztion ardura dela jakinarazi eta auzolanaren bidez mantendu.
- Txabolak ugaritzen ari diren pertzepzioa dago eta udalaren partetik hauen jarraipena egin eta mugatu egin beharko litzatekeela uste da.

**Ingurumena eta
jasangarritasuna**

- Kontzientziazio lana, baina ez soilik ingurumen eta jasangarritasun gaitan edo modu orokorrean, Legorretako errealitateari lotuta baizik, bertakotasun eta "geurea dela" sentimendua lortze aldera. Honen ondoren errazagoa izango baita herritarrek parte hartzea, auzolanak egitea...

Energia

- Herriko berdeguneak zaindu, herritarrek erabiltzeko baldintzak bermatu.
- Energia burujabetzarantz pausuak ematen hasi behar gara. Bi alderditan eragin behar da: batetik, kontsumo-ohiturak; eta bestetik, energia-sorkuntza.
 - o Baso-politiken bat joan beharko luke.
 - o Udal-erakinez gain, beste eragile batzuekin (enpresak, adibidez) lankidetzak edo hitzarmenak sustatu, euren eraikinetan energia-sorkuntzarako jarduerak (eguzki-plakak, adibidez) jartzeko.
- Energia alorrean aholkularitza-zerbitzua eskaini, hala nola, etxeen eraikuntzan, etxebizitzan eraberritzean... kontuan hartzeko. Aholkularitza bai energia-kontsumoa nola aurreztu jakiteko, bai energia-sorkuntzarako aukerak ezagutzeko, bai alor honetan egon daitezkeen diru-laguntza... berri jakiteko.

Jasotako ekarpen horietatik 3 erronka edo ideia nagusi lehenetsi dira talde handira eramateko:

1. Uholdegarritasun gaiari heldu beharra
2. Energia burujabetza
3. Landa-lurren garapena

ANTOLAMENDUA 2 LANTALDEA

Ekipamendu eta zerbitzuak, ekonomia sektoreak eta enplegua, mugikortasuna, eta etxebizitza

8 lagun – 3 emakume eta 5 gizonezko

Lanean hasi aurretik aurkezpen erronda bat egin dugu gure artean hobeto ezagutzeko eta lantaldeetako dinamikaren helburua eta planteamendua azaldu dizkiegu.

Helburua: ardatzari lotutako gaien diagnostikoa osatzea eta erronkak identifikatzea

Planteamendua:

1. Aurkezpen erronda
2. Bananako lana eta hausnarketa
3. Talde txikitan elkarbanatzea
4. Ardazkako mahaira bi ideia edo erronka nagusi eramatea, ondoren mahai zabalean aurkezteko

Banakako hausnarketarako proposamenaren orde, taldean lantaldeari dagozkion gaien errebaso orokorra egin da talde zabalean, partehartzaileek egokiago ikusten zutelako.

Talde errepassoaren ondoren bi taldetan bantu dira partaideak eta etorkizuneko erronkak irudikatzeari ekin diote.



Jarraian jasotako ekarpenak:

Ingurumena

- Uholdegarritasun arazorari heltzea

ekipamenduak eta zerbitzuak

- Zerbitzuen elkartrukea inguruko udalerriekin (herriko baliabideak, aisialdi beharrak, etb.)
- Herriak eskaintzen ez dituen zerbitzuak eskuratzeko laguntzak ematea (bonoak, hitzarmena, etb.)
- Eguneko zentroa
- Nerabeentzako eskaintza (dinamizatailea?)

Etxebizitza

- Etxebizitza tipologiak herritarren beharretara egokitzea (30-35 m²)

Enplegua eta ekonomia sektoreak

- Udala eta merkatarien arteko komunikazio/gunea: kanpainak, egoera...

Mugikortasuna

- Tolosako autobusa eskuragarri jartzea (autobus/tren) ordutegia

Jasotako ekarpen horietatik 2 erronka edo ideia nagusi lehenetsi dira talde handira eramateko:

1. Uholdegarritasunaren arazolari heltzea
2. Zerbitzuen elkar-trukea bultzatzea herriko beharrak inguruko udalerriekin elkarbanatu eta aurre egiteko.

HERRIGINTZA LANTALDEA

Elkartegintza, euskara, haur, nerabe eta gazteak, eta adinekoak

11 lagun – 9 emakume eta 2 gizonezko

Lanean hasi aurretik aurkezpen erronda bat egin dugu gure artean hobeto ezagutzeko eta lantaldeetako dinamikaren helburua eta planteamendua azaldu dizkiegu.

Helburua: ardatzari lotutako gaien diagnostikoa osatzea eta erronkak identifikatzea

Planteamendua:

1. Aurkezpen erronda
2. Bananako lana eta hausnarketa
3. Talde txikitan elkarbanatzea
4. Ardazkako mahaira bi ideia edo erronka nagusi eramatea, ondoren mahai zabalean aurkezteko

Bakarkako hausnarketarako tartea utzi dugu, eta, ondoren, taldetan banatu dira partaideak eta etorkizuneko erronkak irudikatzeari ekin diote.



Jarraian jasotako ekarpenak:

Partaidetza - oro har parte hartzea handitu, belaunaldi berriak ere gauzak antolatzen parte hartzera erakarri-animatu..., beti betikoak eta berdinak ez ibiltzeko.

Euskara - gauzak antolatzerako parte hartzea handitu;
- Komunikaziorako ohiturak aldatzea
- Etorri berriei harrera egiterakoan euskara eskatzea ondo dago, baina bertakoek egin behar dugu
- Umeen hizkuntza-ohiturak aldatzen ari dira...

- Gazteak eta emantzipazioa** - Gazteak herrian bizitzeko eta parte hartzeko etxebizitzak behar dituzte
- Nerabeak eta aisialdia** - Nerabeentzako espazioak eta eskaintza falta da. Beraiekin landu behar da gaur egun herrian ez dagoena.
- Eta zeharka herriarekiko atxikimendua landu, partaidetza, konpromisoa...
- Adinekoak** - Gaur egun badute taldea: TIPI TAPA. Elkartzen dira sozializatzeko. Paseoan ateratzen dira, jendea etxetik ateratzeko. Hala ere ez dute lortzen denak ateratzea.
- Umeekin eta eskolaren bitartez ikasturte amaieran ibilaldia egiten dute herriko txoko edo auzoak ezagutzeko
- Covidarekin geldi egon dira ekintzak. Orain berriz ekingo diote.
- Kirola-aisialdia** - Gimnasioa
- Beste batzuk** - Bidegorria iluna da eta iluntzeetan bakarrik ateratzeko ez da segurua. Argi gehiago jarri. Kasu honetan Foru Aldundiaren eskumena da eta baldintza minimoak betetzen ez dituzenez ez dago araututa.
- Etxe tutelaturako aldapa ere iluna da.

Jasotako ekarpen horietatik 3 erronka edo ideia nagusi lehenetsi dira talde handira eramateko:

1. Partaidetza, konpromisoa, herriarekiko atxikimendua lantzea. Herri eta herritar biziak eta aktiboak izatea.
2. Nerabeentzako espazioak eta ekintzak beraiekin diseinatu eta antolatzea.
3. Gazteen emantzipaziorako etxebizitzaren gaia lantzea

ZAINTZA LANTALDEA

Elkarbizitza, zaintza, berdintasuna eta inklusioa.

Lanean hasi aurretik aurkezpen erronda bat egin dugu gure artean hobeto ezagutzeko eta lantaldeetako dinamikaren helburua eta planteamendua azaldu dizkiegu.

Helburua: ardatzari lotutako gaien diagnostikoa osatzea eta erronkak identifikatzea

Planteamendua:

1. Aurkezpen erronda
2. Bananako lana eta hausnarketa
3. Talde txikitan elkarbanatzea
4. Ardazkako mahaira bi ideia edo erronka nagusi eramatea, ondoren mahai zabalean aurkezteko

Ondoren, bakoitzak bere ekarpenak partekatu ditu taldean, eta eztabaidari ekiteko bi lantalde osatu dira, zaintza eta elkarbizitza, hurrenez hurren, eta etorkizuneko erronkak irudikatzeari ekin diote.

Zaintzaren lantaldeak ondorengo ekarpenak egin ditu:

Bakardadea

- Bakardadea gai larria zela, batez ere zahartzaroan.
- Gogoz kontrako bakardadea, batez ere zaintza beharrak dituzunean.
- Bakarrik bizi diren pertsona helduen diagnostiko bat egin daitekeela aipatu da, herri mailakoa.
- Bakardadeari aurre egiteko komunitatea nola indartu pentsatu behar dela.

Zahartzaroa

- Pandemia garaian zahar egoitzetako larrialdi egoerak ikusita, inork ez luke baldintza horietan zaindua izan nahi.
- Nola zahartu nahi dugun eta zahartzaroari lotutako zaintzak nola banatu nahi ditugun eztabaidatu eta hausnartu beharko genuke.
- Jada ari dira proposamen berriak iristen. Bizikidetzarako unitate txikiagoak, 8-10naka, eta ez ehundaka pertsonen betetako egoitzak.
- Komunitatetik horren menpeko ez direnen zaintza zaindu beharko genuke. Dena ez da zerbitzu ematea, konpainia, kasu egitea, hitz egitea ere garrantzitsua da. Nola aktibatu komunitatea?

Haurrak

- Komunitatetik horren menpeko ez direnen zaintza zaindu beharko genuke. Dena ez da zerbitzu ematea, konpainia, kasu egitea, hitz egitea ere garrantzitsua da. Nola aktibatu komunitatea?
- Hezkidetza programak dira txiki-txikitatik, emakume eta gizonen berdintasuna lantzeaz gain, rol banaketa, estereotipoak gainditzeko, eta zaintza lanei balioa emateko.
- Umeak ere zainduak izan behar dira. Ume asko oso bakarrik eta laguntza beharrean daude. Beharren detekzioarako sare bat sortzea ideia ona litzateke. Adibidez, pediatriak, komertzioak, guraso elkartea eta abar, inplikatu.

Haurrak

- Elkarbizitzaren gaia ikastetxeetatik inoiz baino goizago hasi gara lantzen. Jada 10 urtetik aurrera lantzen hasten da, baina ez da nahikoa. Bizikidetzaren arazo handiak daude haurtzarotik hasita. Bertakoek gehienbat, eta ez askok pentsa dezaketen bezala, kanpokoen artean.
- Haur eta nerabeentzako aisialdi eskaintzaren falta. Ludoteka, edo antzerakoak. Euskara bultzatuko dutenak.

Inklusioa

- Leku ezberdinetan sozializatzen gara jatorri ezberdinetako pertsonak. Ordu-tegi eta leku ezberdinetan.
- Interakziorako espazioak behar ditugu.

Elkarbizitzaren lantaldeak ondorengo ekarpenak egin ditu:

Zerbitzuak

- Komertzio merkeagoen beharra dago, egunerokotasunerako beharrezkoak. Honek, gainera, sozializazioan asko laguntzen du, dendak interakziorako espazioak direlako.
- Paper-denda, fotokopietarako lekua, liburuak... Mugi txartela ateratzeko aukera ematen duen komertzioaren bat.
- "Lokutorioa" falta da; mugikorrerako, edo atzerrirako deiak egiteko.
- Kiroldegia eta igerilekua faltan botatzen dira. Agian zerbitzu guztiak herrian egon ezin diren arren, beste herriekin hitzarmenak egin daitezke prezio merkeagoak adosteko. Aukera merkeagoa, ur txorrotak edo saunak izan daitezke.
- Euskaraz funtzionatzen duen ludoteka. Famili ez euskaldunetako haurrentzako aisialdian euskalduntzeko laguntza baita. Etxerako lanekin ere lagundu dezake espazio horrek.

Elkarbizitza

- Haurrak dauzkagun bitartean errazagoa da herriko beste familiekin harremanak. Haurrak heldu izatera pasatzen direnean zaila da bertako eta kanpokoen arteko harremanak mantentzea.
- Elkar ezagutu, ulertu eta elkarbizitzeko espazioak eta denborak behar dira. Elkarri aitortza egiteko, bakoitza beretik, errespetua bilatzeko.
- Jatorri ezberdineko haur askok herrian geratu nahi dute. Bertan ondo sentitzen direnaren seinale da hori.

Enplegua - Herrian enplegua izatea, herrian geratzeko lotura handiena da. Enplegu falta emakumeen artean, batez ere, emakume migratuen artean.

Jasotako ekarpen horietatik 3 erronka edo ideia nagusi lehenetsi dira talde handira eramateko:


1. Haurtzarotik hasita, hezkidetza eta elkarbizitzaren lanketa egitea, koordinatuz udal zerbitzu, eskola, familiak eta komunitatea.
2. Eguneko zentroaren beharraz gain, pertsona helduen bakardadea era zaintzeko beharra asetzeko bideak aztertzea.
3. Elkarbizitzarako espazio eta denborak eskaintzea.

6. Plenarioan partekatzea: ondorio nagusiak

Partaide guztiok berriro ere areto berean, ardatz bakoitzeko bi ideia edo erronka nagusiak aurkeztu dituzte taldeetako ordezkariak. Post-itak arbelean itsatsi ditugu. Gainerako hausnarketa aktan jasoko dugula adierazi diegu eta bigarren mahai zabalean elkar partekatzeko denbora gehiago izango dutela jakinarazi diegu.

Jarraian partekatutako ideia nagusiak:

1. Uholdegarritasun gaiari heldu beharra
2. Energia burujabetza
3. Landa-lurren garapena
4. Uholdegarritasunaren arazoari heltzea
5. Zerbitzuen elkar-trukea bultzatzea herriko beharrak inguruko udalerriekin elkarbanatu eta aurre egiteko.
6. Partaidetza, konpromisoa, herriarekiko atxikimendua lantzea. Herri eta herritar biziak eta aktiboak izatea.
7. Nerabeentzako espazioak eta ekintzak beraiekin diseinatu eta antolatzea.
8. Gazteen emanzipaziorako etxebizitzaren gaia lantzea
9. Haurtzarotik hasita, hezkidetza eta elkarbizitzaren lanketa egitea, koordinatuz udal zerbitzu, eskola, familiak eta komunitatea.
10. Eguneko zentroaren beharraz gain, pertsona helduen bakardadea era zaintzeko beharra asetzeko bideak aztertzea.
11. Elkarbizitzarako espazio eta denborak eskaintzea.



7. Balorazioa

Saioaren balorazioa egiteko saioaren tenperatura zein izan den neurtu dugu, hortaz: hotz, epel edo bero kokatu dira areto nagusian, eta nahi dutena partekatzeko aukera eskaini diegu.

Ondorengo galderak luzatu dizkiegu, nola baloratzen duzue...

- Gaurko saioan aurkeztutako eta landutako edukiak?
- Lan egiteko modua?
- Eta saioan izandako giroa?

Oro har, parte-hartzaile guztiak hiru galderetan gune beroan kokatu dira.



8. Itxiera

Eskerrak eman eta hurrengo urratsak zeintzuk diren gogorarazi ditugu:

- Azaroaren 3an, asteazkena, inspirazio-saioa
- Azaroaren 13an, larunbata, bigarren mahai zabala